



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.com

2014ko URRIA - 157. zenbakia

Ikasturte berriari ekin diote Bertsoa.com eta Hitzetik Hortzerak

Hitzetik Hortzera telebista saioak irailaren 28an abiatu zuen ikasturte berria. Iragan denboraldiko ordutegian eskainiko da: igande bazkaldoan, 15:00etan, eta astelehen gauetan, 23:15ean. 26 saio izango dira, Aste Santura bitartean eskainiko direnak.

Astero bi saio grabatuko ditu eta bertsozaleen jarriko du begia. Horretarako bertsozaleen analisiak baliatuko ditu. Ainara Lasaren off-ahotsa izango da saioko lokarri. Denboraldi berria saio monografiko gehiago eskainiko ditu telebista saio bateranoak.

www.bertsoa.com internet bidezko hedabideak ere hartu du ikasturte berriko grabazio martxa. Informazioa egunero berritzen da eta hiru saiotako bertsoaldiak eskainiko ditu astero-astero. Ohiko edukiez gain, hurrengo hilabeteotan atari berezia izango dute Xilabak eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketak.

Erredakzio bateratua abian da

Urtetan aztergai izan ondoren irailetik aurrera abian da hedapen erredakzio bateratua. Orain arte edukiak eta bertso grabazioak koordinatzen zituzten Hitzetik Hortzera eta www.bertsoa.com erredakzio kideek. Hemendik aurrera erredakzio bakarrean arituko dira lanean Felix Irazustabarrena, Eneritz Urkola, Jexux

Mari Irazu eta Beñat Gaztelumendi.

Hedapen proiektu bakoitzak bere bidea egin du. Elkarlanean kudeatzen ditu biak Bertsozale Elkarteak: Hitzetik Hortzera EITBrekin eta www.bertsoa.com, berriz, Librean kooperatiba elkartearekin egiten dugu elkarlanean.

Hemendik aurrera lan-taldeak uztartu eta Bertsozale Elkartearen sustapen sailak koordinatu eta gainbegiratuko ditu bi proiektuok. Sinergiak aprobetxatu eta www.bertsoa.com egitasmoaren finantziak bideratzea izan dira bateratzea azkartzeko arrazoi guztiak.

Nolanahi ere, edukiak koordinatzeaz gain Hitzetik Hortzera eta www.bertsoa.com proiektuen bereizgarriak indartzen saiatzen ari da erredakzioa, bateratzeak berdintzeko arriskua ere baduelako: "Bi hedapen instrumentuek bertso eduki ezberdinak eskainiko dituzte. Horrez gain komunikatzeko modua ere ez da berbera izango" adierazi digu Eneritz Urkolak, erredakzio bateratuaren koordinatzaileak.



Hitzetik Hortzera eta Bertsoa.com-eko lantaldea. //XDZ



ANE LABAKA
Lizardi sariketaren irabazlea
Zarautz, 2014-IX-5

Gaia: Esnatu zarenean, oraindik hor jarraitzen du

Nik konpainia izan nahi nuen ohera joandakoan ta sentitzea hor zebilela etorri edota joan imajinatuz printze urdina irriparre bat ahoan beti ondoan izango nula gaizki sentitutakoan. Gaur sentitzen det amets guztiak ez direla saldu doan nere ametsetan agertzen zena oraintxe baitet ondoan.

Nik maite ditut bere laztanak bere irripar lizuna gau erotako basakeria ta bere goxotasuna mutil honengan aurkitu baitet lehenago amesten nuna izara artean agertu baitzait ametsetako kuttuna. Eta gaur argi ikus dezaket lehenago zena iluna edozertako gai sentitzen naiz hasi dedila eguna.

Harreman baten hasiera da ta ez gaude horren grabe baina maiz gauzak aldatzen dira hori ez da nobedade. Maiz pentsatu det naranja erdi bat izatea parez pare osotasuna izan nahi nuke ta osoa naiz hala're. Ahaztu ditzadan nire beldurrak mila inseguritate lotarako gai izan nahi nuke zu ondoan izan gabe.

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredakzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argizkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / posta-e: komunikazioa@bertsozale.com

Urriaren 4an abiatuko da Xilaba xapelketa

Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko xapelketaren laugarren edizioa urriaren 4an hasi eta azaroaren 15ean amaituko da. Osotara sei saio izango ditu Xilaba xapelketak.

Kanporaketak:

Urriaren 4an, 17:00etan. Muskildi, Posonpesenean: Sustrai Colina, Egoitz Zelaia, Xan Alkhat, Aitor Servier, Gillen Hiribarren eta Mixel Etxekopar.

Urriaren 11an, 17:00etan. Senpere, Larreko Kulturgunean: Maddi Sarasua, Xumai Murua, Battitt Crouspeyre, Lur Renteria, Miren Artetxe, eta Maddalen Arzallus.

Urriaren 18an, 17:00etan. Aiherra, Denen Etxea gelan: Odei Barroso, Eneritz Zabaleta, Ortz Murua, Ramuntxo Christy, Patxi Iriart eta Ortz Idoate.

Finalerdiak:

Urriaren 26an. Larresoro, Herriko gelan.
Azaroaren 2an. Aiziritz, Herriko gelan.

Finala:

Azaroaren 15ean, 17:00etan. Baiona, Lauga gelan.

Xapelketaren inguruko informazio osoa, www.bertsozale.eus/xilaba webgunean aurkituko duzue. Bertsoa.com-ek ere atal berezi bat eskainiko dio Xilabari, saioetako informazio eta bideoekin.

Urriaren 12an hasiko da Galdakaon Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Pertsona guztiak gara desberdinak. Baina bertsozaletasunak batzen gaitu. Eta horrela goaz, Bizkaia osoko bertsoaren ekosistema josi eta josi.

Urriaren 12an abiatuko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, eta abenduaren 20an amaituko da Bilbon, Miribillan.

Eskualdeetatik sailkatutako bertsolariez gain, aurreko urteetan finalistak izandako bertsolariek osatuko dute txapelketako parte hartzaileen zerrenda.

Kanporaketak:

Urriaren 12an, Galdakaoko Torrezabal aretoan: Aitor Bizkarra Ruiz, Beñat Ugartetxea Ostolaza, Garikoitz Sarriugarte Onaindia, Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia, Iñaki Iturriotz Zuluaga, Julen Erezuma Arzanegi.

Urriaren 19an, Gautegiz-Arteagako frontoian: Aitor Arrutia Azkueta, Inazio Vidal Gurrutxaga, Itxaso Paya Ruiz, Josu Landeta Egurrola, Lander Ibarluzea Bikandi 'Aitxulua', Oihana Bartra Arenas.

Urriaren 25ean, Mungiako Olalde aretoan: Eneko Abasolo Txabarri 'Abarkas', Gorka Lazkano Arrizubieta, Jon Rementeria

Larruzea, Joseba Artza Zubillaga, Julen Iburguengoitia Ordorika, Peio Ormazabal Villanueva.

Azaroaren 2an, Mallabiko frontoian: Arrate Illaro Etxebarria, Eneko Arrate Sololuze, Gorka Ostolaza Ikarán 'Potxis', Malen Amenabar Larrañaga, Nerea Ibarzabal Salegi, Peru Vidal Gurrutxaga.

Azaroaren 9an, Zeanuriko frontoian: Ander Elortegi Garatea, Beñat Vidal Gurrutxaga, Igor Meñika Bengoetxea, Imanol Uria Albizuri, Joseba Barandiaran Andueza, Xabat Galletbeitia Abaroa.

Finalaurrekoak azaroaren 22an, 30ean eta 7an jokatu dira.

Finala abenduaren 20an Bilboko Bilbao Arenan.

Txapelketaren inguruko xehetasunak eta informazio osoa www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa webgunean aurkituko duzue. Bertsoa.com-ek ere atal berezia eskainiko dio txapelketari.

Txapelketarako aurre-kanporaketak Araban

2015ean jokatu den Arabako Bertsolari Txapelketan 18 bertsolarik parte hartuko dute. 35 bertsolarik izena eman dutenez, hiru aurre-kanporaketa jokatu dira Txapelketan nortzuk hartuko duten parte erabakitzeko.

Bost aurre-kanporaketak hiru egunetan banatuta jokatu dira irailaren 27an (Kanpezu), urriaren 4an (Ozaeta) eta urriaren 11n (Elosun). Informazio osoa www.bertsozale.eus webgunean aurkituko duzue.

Bee eguna ospatuko da Senperen urriaren 11n

Euskal Herriko Bertso Eskolen Eguna laugarren edizioa ailegatu da. Lesaka, Zarautz eta Markina-Xemeinen egin da aurreko urteotan, eta oraingoan Senperen ospatuko da Bee Eguna.

Bertso Eskola Arrosak antolatu du bere herrian aurtengo edizioa eta bertara Euskal Herriko bertso-eskoletako kide guztiak daude gonbidatuta.

Egitarau oparoa prestatu dute urriaren 11rako:

12:00 Topaketen hastapena Larraldean
(Bertsularien Lagunak Elkartearen egoitzan)

13:00 Bazkaria Larraldean
15:30 Kantu ibilaldia Senperera
17:00 Xilaba xapelketako kanporaketa saioa
19:00 Poteoa, talo jatea, eta kale animazioa
21:00 Pesta Senpereko Gaztetxean

Bazkarirako sarrerak urriaren 5a arte dira salgai www.bertsosarrerak.eu webgunean.

Atsedetik ez udaran

Ikasturtea ekitaldiz beterik badator, baina udaran ere ez gara lozorroan gelditu eta oso ekitaldi interesgarriak antolatu ditugu: udalekuak, ikastaroak eta jardunaldiak.

Bertso udalekuen edizio berria

Urtero bezala udarak bertso udalekuak ekarri dizkigu. 300 haur eta gaztetxok eta 50 begiralek hartu dute parte antolatu diren txandetan: Baigorri, Orio, Zuhatza, Irañeta, Arrazola, Barria, Donostia eta aurtun lehen aldiz Bilbon, Zenbat Gara elkartearekin elkarlanean.

"Bertsoa Unibertsitatean" udako eskola arrakastatsua

"Bertsoa Unibertsitatean" eskola, maiatzean EHUko Uda Ikastaroen eta Mintzolaren artean adostu hitzarmenaren baitan kokatu da. Horren arabera, EHUko Uda Ikastaroak eta Mintzolak 2014tik 2018a arte urtero bertsoaritzari buruzko eskola bat (5 egunetako jardunaldiak) antolatuko dute, hitzaldi eta performanceez osaturikoa, eta okerrik ezean, urtero uztaileko 2. astean izango dena.

Aurtengoa izan da lehenengoa, "eskola" deitu dugu hainbat ikastaro baitzuten bere baitan. Miramar Jauregian izan zen uztailearen 7tik 11ra. Eskolak 3 ikastaro desberdin izan zituen bere baitan; 3 egunekoa bata eta egun bakarreko beste biak: "Bertsolaritza eta ahozotasuna Hezkuntza Arautuan"; "Bertsolaritza eta beste sorbideak" eta "Bertsolaritza eta gaurko gizartea".



"Bertsoa Unibertsitatean" udako eskola 2014.//XDZ

Eskolako ikastaroak 115 matrikula izan zituen; lehendabiziko ikastaroan 75 eta beste bietan hogeina. "Bertsolaritza eta beste sorbideak" ikastaroaren barruan bertso saio berezia oso ongi ateratu zen eta horrekin gozatzeko 200 lagun inguru hurbildu ziren Miramar Jauregira.

Ahoa Bete Hots jardunaldiak, Mintzolaren eskutik

Bosgarren urtera ailegatu dira Ahoa Bete Hots jardunaldiak. Antzerki, kantu, ipuin eta bertso munduko borondatezko ordezkariak osatu batzordeak diseinatu zuen egitasmoa eta Mintzolaren bidez gauzatu zen.

"Esan berriz esan" izan zen jardunaldion leloa eta ahozko generoen transmisioa izan zuten gai nagusia.

Orain arteko kopururik handiena izan da matrikulan: 27 lagun; Euskal Herriko herrialde ezberdinetatik hurbildu zirenak. Eta haiengandik jasotako galdetegiaren erantzunen arabera oso pozik geratu dira jardunaldietan jasotakoarekin, oso balorazio ona egin baitute.

Ahoa Bete Hotseko hitzaldiak eta saioak ikusgai daude www.bertsoa.com webgunean eta okerrik ez dela laster izango dituzue www.mintzola.com-en hitzaldiak transkribaturik.



Ahoa Bete Hots 2014.//XDZ



Puntu jarrita

OSKAR SANZ DE ACETO

Hizkuntzarekin gozatu

Ai, ai, Xabi, nahi nuke bai gaelikoz aritu, baina tamalez denari ezin ekin....eta Irlandan 8 azken urteetan sarritan ibilita, lotsatzen naiz, pittin bat bada ere!

Jakina da irlandera kinka larrian dagoela eta nekez entzun daitekela, "Gaeltacht" batean ez bada, hori baita haien hizkuntza babesteko sortu dituzten eremuak. Espero dut guk horretarako beharrik ez izatea, eta gure "Euskaltacht"-ek birtualak izaten jarrai dezaten. Dena den, euskaldunok "arnas guneak" sortzen eta zabaltzen jarraitu behar dugu, eta noski bertsoa dugu gure "euskaltacht" nagusienetakoa.

Eta irlandarrei, zerk lagunduko die gaelikoari lotzen? Jostatu eta gozatu behar da hizkuntza, eta horrela ikasteari emandako izerdi tantak goxatzen dira, bizikletako nekea goxatzen den bezala. Haien musika ondarea izan liteke "musiktacht", eta sagardoa eta Guinnessa batuz ea konpartitzen ditugun gure kantuek eta ilusioak 2015ean. Baietz sorpresa batzuk hurrengo urteko bertso-dinnerrean!

Bertsoa akuilu eta gozamen da nire euskara ikasteko bidaian. Nire euskara hobetzen den heinean erosoago sentitzen naiz nahi dudana komunikatzeko, eta horrek noski bertsoarako lagundu.

Baina euskaldunberriengan bertsoak sortzen duen miresmenaz zein hobe hitz egiteko, Ainhoa baino? Bertsolagun eta irakasle fina, Hamelingoaren antzera sorginduta darama ikasle pila bertsoaren mundura. Eta nahiko sorgina izanda, zuregana joko dut, Ainhoa, aholku eske: nola helarazi bertsoaren pozima, gure gaztetxoak euskararekin maitemintzeko?

Koplak

Gai-jartzaile eskola martxan

Urriaren hamaikan abiatuko da Bertsozale Elkarteak antolatu duen Gai-jartzaile eskola. Maiatza bitartean zortzi saio egingo dituzte, Josu Goikoetxearen eta Amaia Agirrearen gidaritzapean. Hogeita zortzi lagunek eman dute izena, ia gehienak gai-jartzen aritutakoak dira, gutxi edo gehiago. Lurralde guztietako gai-jartzaileak prestatzea da helburua. Saio tematikoak izango dira: jaialdiaren egitura, gaien planteamendua, gorputz espresioa, hitzen erabilera ideologikoa, literaturaren eragina, saioaren formulazioa...

Poto-Finixa



Bertsozale.eus da Bertsozale Elkartearen webgunea

Uztaitetik www.bertsozale.eus da Bertsozale Elkartearen webgunea, ordu arte erabiltzen genuen www.bertsozale.com ordezkaturik. PuntuEus Fundazioaren eskutik, Euskal Herriko beste 91 eragilerek batera .EUS domeinuarekin bat egin du Bertsozale Elkarteak eta aitzindarien taldean sartu da. Interneten euskara eta euskal kultura sustatzeko tresna da .EUS domeinua bultzatzen duen ekimena.



GARAI HURA GARA



Emanaldi berria!
www.lanku.com